



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

ABELTZAINZAKO USTIATEGIETAKO ABEREEN ONGIZATEARI BURUZ INDARREAN DAGOEN ARAUDIA BERRIKUSTEA

Sarrera

Txosten honetan, alde batetik aipatuko ditugu abeltzaintzako ustategietako Abereen Ongizateari buruz Estatu mailan indarrean dauden legedi nagusiak; eta bestetik, legedi horietako betebeharrak; horretarako, abereak espezieka sailkatuko ditugu.

Batik bat abeltzaintzako ustategien jabeek bete beharreko betekizunak jasoko ditugu; baina txostenaren amaieran erakunde eskudunei dagozkien betebeharren inguruko aipamena ere egingo dugu.

Legedian betekizun bakoitza zein puntutan aipatzen den ere adieraziko dugu, informazioa

egiaztatu edo zabaldu nahi izanez gero, bilaketa erraztearren.

- Hauek dira sailkatuta dauden abereen espezieak:

- Abere guztiak oro har
- Txahalak
- Txerriak
 - Aketzak
 - Txerri emeak eta txerri eme gazteak
 - Esne-txerrikumeak
 - Titia kendutako txerrikumeak eta ekoizpeneko txerriak
- Oilo erruleak
- Haragitarako oilaskoak

Erabilitako siglak eta laburdurak:
MARM: Ingurumen, Landagune eta
Itsas Inguruetako Ministerioa / kapt:
kapitulua / art: artikulua /idatz-zati:
idatz-zatia / ptu: puntua

Espezie guztiak

348/2000 Errege Dekretua, martxoren 10ekoa, abeltzaintzako ustategietan abereak babesteari buruzko 98/58/EE zuzentaraua ordenamendu juridikoan sartu duena.

98/58/EE Zuzentaraua Estatuko barne zuzenbidera sartzea

Kasu hauetan ez da aplikatuko: naturan bizi diren abereak; kirol edo kultur lehiaketetan, erakusketetan edo jardueretan parte hartzen duten abereak: esperimenterako abereak eta ornogabeak.

Ekoizleek bete beharreko betekizunak:

• 3a) art. Ekoizpenerako abere guztientzat (arrainak, narrastiak eta anfibioak barne): Abeltzaintzako ustategietako abereen jabeek eta hazleek neurri egokiak hartu beharko dituzte abereen ongizatea ziurtatzeko; eta, horrela, alferrikako min, sufrimendu edo oinazerik izango ez dutela bermatu ahal izango dute.

• ERANSKINA: Ekoizpenerako abere guztientzat (arrainak, narrastiak eta anfibioak salbu):

1.- 1. ptu. Langileak: Nahikoak izango dira, eta beharrezko gaitasun eta ezagutza profesional maila izango dute.

2.- 2. ptu. Jabeek egin beharreko ikuskatzeak eta kontrolak: a) abereen ongizatea gizakiaren arretaren menpe izanez gero, gutxienez egunean behin egingo dituzte; eta beste hazkuntza sistema batzuetan, batetik bestera nahiko tarte luzea utziko dute (ukuiluan sartutako txekorrei egunean birritan), b) abereak aztertze argizatze finko edo mugikor egokia izango dute, c) gaixorik edo zauriturik dagoen abereari berehalako tratamendu egokia emango diote; eta tratamenduari erantzuten ez badio, al bait azkarren kontsultatuko dute al baitariarekin. Beharrezkoa bada, leku egokian isolatuko dira abereak.

3.- 3. ptu. Erregistroak: Emandako tratamendu mediku guztiena eta hildako abere guztiena. Ondorio horietarako, baliagarria da erregistro

horiek beste helburu batzuetarako erabiltzea. Gutxienez hiru urtez jasoko dira, eta Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunaren esku jarriko dira, hala eskatuz gero.

4.- 4. ptu. Mugitzeko askatasuna: Abereek duten mugitzeko askatasuna ez da mugatuko, alferrikako sufrimendua edo oinazeak saihestearren. Abereak loturik, kateaturik edo atxikirik badaude (beti edo noizbehinka), leku egokia izango dute euren behar fisiologikoetarako eta etologikoetarako.

5.- 5. ptu. Eraikinak, ukuiluak, esparruak eta ekipamendua: Eraikuntza materialak ez dira kaltegarriak izango abereentzat, eta sakonki garbitu eta desinfektatu ahal izango dira. Ukuiluek eta osagarriek ez dute izkina zorrotzik izango, abereak zauritu ez daitezzen.

Airearen zirkulazioa, hauts maila, temperatura, airearen hezetasun erlatiboa eta gas kontzentrazioa maila egokian mantendu beharko dira, hori guztia txahalentzat kaltegarria izan ez dadin.

Argizatzea: Abereak ez dira etengabe ilunpetan izango, eta ez dute argi artifizialaren bat-bateko etenaldirik izango. Abereek euren behar fisiologikoak eta etologikoak egiteko duten argi naturala egokia ez bada, argi artifiziala jarriko zaie.

6.- 6. ptu. Aire zabalean dauden abereak: Aire zabalean dauden abereak eguraldi txarretik, harrapariengandik eta gaixotasunak edukitzeko arriskutik babestu behar dira.

7.- 7.ptu. Ekipamendu automatikoak eta mekanikoak: Gutxienez egunean behin aztertuko dira abereen ongizaterako eta osasunerako ezinbestekoak diren ekipamenduak. Akatsak aurkituz gero, berehala konponduko dira; baina ezinezkoa bada, neurri egokiak hartuko dira. Abereen ongizatea eta osasuna aireztapen artifizialerako sistemaren menpe badaude, larrialdietarako sistema egokia izan beharko da nahiko aire berritzen dela bermatzeko (adibidez: leihoak irekitzea). Alarma sistema ere izan beharko da matxuraren berri izateko. Sistema hori maiz egiaztatu beharko da.

8.- 8. ptu. Elikadura, ura eta beste substantzia batzuk: Abereei elikagai osasuntsuak eta nahikoak emango zaizkie, osasun egoera onari eusteko eta dituzten nutrizio beharrianak asetzeko. Ez zaie emango alferrikako oinazeak edo sufrimendua eragingo dieten ez elikagairik ez urik, ezta horietan bestelako substantziarik ere. Elikagaiak eta ura izango dituzte tarteka, modu egokian. Kalitate oneko ur kopuru nahikoa edo bestelako likidoak izango dituzte euren ur-premia asetzeko. Abereentzako elikagaien eta uraren kutsadura arriskua ahalik eta gehien murrizteko moduan eta abereen arteko lehia ekiditeko moduan eraiki, instalatu eta mantendu beharko dira ustategia urez eta likidoz hornitzeko ekipoa.

Substantziak: Abereei ez zaie emango bestelako substantziarik (elikagaiak eta ura salbu), ez badira helburu terapeutikoetarako edo profilaktikoetarako, edo tratamendu zooteknikorako emandakoak. Hori guztia, baldin eta azterketa zientifikoek edo eskarmentuak adierazten ez badute substantzia ez

dela kaltegarria abereen osasunerako eta ongizaterako.

9.- 9. ptu. Mutilazioak: Mutilazio arloko berariazko xedapenak hartu bitartean eta txerriak babesteko gutxienezko neurriei buruzko 1048/1994 Errege Dekretuan, maiatzaren 20koan, zehaztutakoari kalterik egin gabe, Estatuko xedapenak aplikatuko dira, betiere Hitzarmeneko arau orokorrak errespetatzen badira.

10. 1. ptu. Hazkuntza prozedura: Ez da erabiliko abereari zauriak edo sufrimendua eragingo dizkion hazkuntza prozedurarik. Hala ere, garrantzirik gabeko zauriak edo sufrimendua eragingo dizkieten prozedurak edo min iraunkorra eragingo dieten esku hartzeak baimenduko dira, betiere Estatuko xedapenek baimentzen badute (adibidez: krotalazioa...)

Ez da abererik mantenduko ustategian oinarririk gabeko abeltzaintza helburuekin (bere genotipoan eta fenotipoan oinarrituta), osasunean eta ongizatean eraginik izango ez duelakoan.

TXAHALAK:

1047/1994 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, txahalak babesteko gutxieneko araei buruzkoa (91/629/CEE Zuzentaraua Estatuko barne zuzenbidera sartzea) + 229/1998 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, maiatzaren 20ko 1047/1994 Errege Dekretua aldarazten duena, txahalak babesteko oinarritzko araei buruzkoa. (97/2/CEE Zuzentaraua Estatuko barne zuzenbidera sartzea. Zuzentarau horren bidez, 91/629/CEE Dekretua aldatu zen).

Hazkuntzarako eta gizentzeko leku itxian dauden txahalei aplikatuko zaie.

Txahalaren definizioa: Sei hilabete bitarteko abelgorria.

Erakunde eskuduna: MARM, beste herrialde batzuekiko harremanetarako eta Autonomia Erkidegoa, erkidego barruko harremanetarako.

Ekoizleek bete beharreko betekizunak:

- 229/1998 Errege Dekretua, 2006ko abenduaren 31tik aurrera alojamenduetan egon beharreko gutxieneko lekuari buruzkoa:

1.- 1. ptu. a) Banakako esparruak: Zortzi aste baino gehiagoko txahalik ezin izango da sartu banakako esparruetan, baldin eta albaitari batek ziurtatzen ez badu txahalak isolatuta egon behar duela tratamenduren bat hartu ahal izateko. Banakako esparru guztiek izango dituzte txahalen arteko ikus-eta uki-eremu zuzena bermatuko dituzten horma zulatuak. Gaixorik dauden abereak isolatzeko, banakako esparruetan baino ez dira baimenduko horma solidoak. Zabalera: txahalaren banakako esparruen altuera, gutxienez, aberea zutik dagoela gurutzegunean duen altueraren hainbatekoa izango da; luzera, gutxienez, txahalak muturraren puntatik iskionaren buztan-muturreraino duen luzeraren hainbatekoa izango da, bider 1,1.

2.- 1. ptu. b) Taldeko hazkuntza:

1,5 metro koadroko espazio librea
150 kilo baino gutxiagoko txahalek

1,7 metro koadroko espazio librea
150 eta 220 kilo bitarteko pisua
duten txahalek.

1,8 metro koadroko espazio librea
220 kilo baino gehiagoko txahalek.

Jarraian adierazten diren baldintzak:
ez dira aplikatuko 6 txahal baino
gutxiagoko ustiategietan, ezta ere
titia hartzeko amarekin edukitzen
diren txahalen kasuan:

- 1047/1994 Errege Dekretuaren ERANSKINA, txahalen hazkuntzarako baldintzei buruzkoa, 229/1998 Errege Dekretuaren 3. puntuari egindako aldaketak barne + 348/2000 Errege Dekretuan xedatutako baldintzak espezie guztientzat:

1.- 229/1998 Errege Dekretuaren 3. ptu. b) Ukuiluak eraikitzerakoan aintzat hartu behar da txahal guztiek izango dutela aukera arriskurik gabe etzanda jartzeko, atsedean hartzeko eta garbitzeko.

2.- 1047/1994 Errege Dekretuaren ERANSKINAren 1. ptu. Ukuilua eraikitzeko materialak eta, bereziki, esparruak eta ekipoak egiteko txahalekin kontaktuan egon daitezkeen materialak: ez diete oinazetik eragingo txahalei eta sakonki garbitu eta desinfektatu ahal izango dira.

3.- 1047/1994 Errege Dekretuaren ERANSKINAren 2. ptu. Zirkuitu eta instalazio elektrikoak: Europako Batasuneko araudia ezarri bitartean, instalazio elektrikoak Estatuan indarrean dagoen araudiaren arabera jarriko dira deskarga elektrikoak ekiditeko.

4.- 1047/1994 Errege Dekretuaren ERANSKINAren 3. ptu. Airearen zirkulazioa, hauts maila, tenperatura, airearen hezetasun erlatiboa eta gas kontzentrazioa maila egokian mantendu beharko dira, txahalentzat kaltegarria ez izateko.

5.- 1047/1994 Errege Dekretuaren ERANSKINAren 4. ptu. Ekipamendu automatikoak eta mekanikoak: gutxienez egunean behin aztertuko dira txahalen ongizaterako eta osasunerako ezinbestekoak diren

ekipamenduak. Akatsak antzemanaz gero, berehala konponduko dira; baina ezinezkoa bada, neurri egokiak hartuko dira. Batik bat, elikagaiak hornitzeko eta inguru egokiari eusteko metodo alternatiboak erabiliko dira.

6.- Aireztapen artifizialeko sistema erabiltzen bada, ordeztako sistema izan beharko da nahiko aire berritzen dela bermatzeko. Gainera, alarma sistema ere izan beharko da matxuren berri izateko. Sistema hori maiz egiaztatu beharko da.

7.- 1047/1994 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 5. ptu. Argizatzea: Txahalak ezin izango dira etengabe ilunpetan izan. Argizatze egokia izan behar da, naturala edo artifiziala. Artifiziala bada, goizeko bederatziak eta arratsaldeko bostak bitartean izaten den argi naturalaren adinakoa izan beharko du.

8.- 229/1998 Errege Dekretuaren 3. ptu. a) Ikuskatzeak: Ukuiluko txahal guztiak, gutxienez egunean bitan ikuskatu beharko dira eta kanpoaldekoak egunean behin gutxienez. Argizatze finko edo mugikorra abereak aztertzeo adinakoa izango da.

9.- Gaixorik dauden abereak: gaixotasun edo zauriren bat izan dezakeen abereak tratamendua jasoko du berehala. Abereak zaintza horiei erantzuten ez badie, al baitariarengana joko da ahalik eta lasterren. Hala behar izanez gero, abereak leku egokian isolatuko dira. Leku horrek etzaleku lehorrak eta eroak izango ditu.

10.- 229/1998 Errege Dekretuaren 3. ptu. c) Loturak: taldeka ez dauden txahalak ezin izango dira lotu. Taldeka dauden txahalak baino ezin izango dira lotu; eta edoskitzaroan, gehienez ere ordu betez. Loturek ez dute itotzerik edo zauririk eragingo. Lokarriok aldizka behatuko dira, eta txahalari arriskurik gabe etzaten, atsedean hartzen eta garbitzen utziko diote.

11.- 348/2000 Errege Dekretuaren 8. ptu. Elikadura, ura eta beste substantzia batzuk: abereei elikagai osasuntsuak eta nahikoak emango zaizkie, osasun egoera onari eusteko eta dituzten nutrizio beharrianak asetzeko. Ez zaie emango alferrikako oinazeak edo sufrimendua eragingo dieten ez elikagairik ez urik, ezta horietan bestelako substantziarik ere.

12.- Abereentzako elikagaien eta uraren kutsadura-arriskua ahalik eta gehien murrizteko moduan eta abereen arteko lehia ekiditeko moduan eraiki, instalatu eta mantenduko dira ustategia urez eta likidoz hornitzeko ekipoak.

13.- 229/1998 Errege Dekretuaren 3. ptu. g) Txahal guztiek hartuko dute, jaio ondoren, behi-oritza ahalik eta lasterren; eta beti jaio ondorengo lehenengo sei orduetan.

14.- 1047/1994 Errege Dekretuaren 12. art. e): Txahal guztiek hartuko dute, gutxienez, elikagai anoa bi egunero. Txahalak taldeka badaude eta euren kasa edo sistema automatikoz elikatzen ez badira, txahal guztiak elikatuko dira batera.

15.- 1047/1994 Errege Dekretuaren 13. ptu. f) Bi aste dituztenetik aurrera, txahal guztiek izango dute ur fresko egokia, behar adinako kopuruetan banatuta. Edo beste edari batzuk hartuz asebate ahal izango dute euren ur-beharra. Nolanahi ere, bero handia egiten badu edo txahalak gaixorik badaude, beti izan beharko dute eskura edateko ura.

16.- 229/1998 Errege Dekretuaren 3. ptu. d) Eguneko dietak burdin kopuru nahikoa izango du, odoleko hemoglobina maila gutxienez 4,5 mmol/l-koa izan dadin.

17.- Zuntza: bi astetik gorako txahalei gutxienezko zuntz anoa emango zaie egunero. Zortzi astetik hogeia atera bitarteko txahalen eguneko anoa 50 g-koa izan beharrea, 250 g-koa izango da.

18.- Substantziak: Abereei ez zaie emango bestelako substantziarik (elikagaiak eta ura salbu), ez badira helburu terapeutikoetarako edo profilaktikoetarako, edo tratamendu zooteknikoetarako emandakoak. Hori guztia, baldin eta azterketa zientifikoek edo eskarmentuak adierazten ez badute substantzia ez dela kaltegarria abereen osasunerako eta ongizaterako.

19.- 229/1998 Errege Dekretuaren 3. ptu. d) Muturrekoak: txahalei ez zaie muturrekorik jarriko.

20.- 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 1. ptu. Langileak: nahikoak izango dira, eta beharrezko gaitasun eta ezagutza profesional maila izango dute.

21.- 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 3. ptu. Erregistroak: emandako tratamendu mediku guztiena eta hildako abere guztiena. Ondorio horietarako, baliagarria da erregistro horiek beste helburu batzuetarako erabiltzea. Gutxienez hiru urtez jasoko dira, eta Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunaren esku jarriko dira, hala eskatuz gero.

22.- 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 6. ptu. Aire zabalean dauden abereak: eguraldi txarretik, harraparietatik eta gaixotasunetatik babestu egingo dira, beharrezkoa izanez gero eta ahal izanez gero.

23.- 348/2000 Errege Dekretuaren 9. ptu. Mutilazioak: mutilazio arloko berriazko xedapenak hartu bitartean, eta txerriak babesteko gutxienezko neurriei buruzko 1048/1994 Errege Dekretuan, maiatzaren 20koan, zehaztutakoari kalterik egin gabe, Estatuko xedapenak aplikatuko dira, betiere Hitzarmeneko arau orokorrak errespetatzen badira.

24.- 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 10. ptu. Hazkuntza

prozedura: ez da erabiliko abereari zauriak edo sufrimendua eragingo dizkion hazkuntza prozedurarik. Hala ere: Garrantzirik gabeko zauriak edo sufrimendua eragingo dizkieten prozedurak edo min iraunkorra eragingo dioten esku hartzeak baimenduko dira, betiere Estatuko xedapenek baimentzen badute (adibidez: krotalazioa...)

25.- Ez da abererik mantenduko ustiatégian oinarririk gabeko abeltzaintza helburuekin (bere genotipoan eta fenotipoan oinarrituta), osasunean eta ongizatean eraginik izango ez duelakoan.

Beste herrialde batzuetatik inportatzea:

- 1047/1994 Errege Dekretuaren 6. art. Espainiara inportatzeko, beste herrialde batzuetako abereek herrialde horretako erakunde eskudunaren agiria izan beharko dute. Agiriak ziurtatuko du abere horiek komunitateko abereek izan duten tratamenduaren antzekoa jaso dutela, gutxienez.

Txerriak

1135/2002 Errege Dekretua,
urriaren 31koa, txerriak babesteko
gutxieneko araei buruzkoa.

1047/1994 Errege Dekretua
indargabetzen du.

2003ko urtarrilaren 1ean jarri zen
indarrean (baldintza batzuk izan
ezik. Dagozkien baldintzetan
zehaztuta daude).

2001/88/CE eta 2001/93/CE sartzen
ditu Estatuko barne zuzenbidera.

Hazkuntzarako zein gizentzeko
diren eta leku itxietan hazten diren
txerriei aplikatuko zaie. Definizioak.

Errege Dekretu honen
ondorioetarako:

1. "Txerria": txerri espezieko edozein
adinetako aberea, ugalketarako zein
gizentzeko hazten dena.
2. "Aketza": pubertaroa igaro duen
txerri espezieko arra, ugalketarako
hazten dena.
3. "Txerri eme gaztea": pubertaroa
igaro duen baina erditu ez den txerri
espezieko emea.
4. "Txerri emea": lehenengo
erditzea izan duen txerri espezieko
emea.
5. "Edoskitzaroan dagoen txerri
emea": jaiotza ondorengo eta esne-
txerrikumeei titia kendu aurreko
garaiaren arteko adin-tartean
dagoen txerri emea.
6. "Titia kendu ondorengo txerri
emea eta umedun txerri emea":
jaiotza ondorengo eta txerrikumeei
titia kendu aurreko garaiaren arteko
adin-tartean dagoen txerri emea.

7. "Esne-txerrikumea": jaiotzetik titia kendu bitarteko txerria.

8. "Titia kendutako txerrikumea": titirik hartzen ez duen 10 aste bitarteko txerria.

9. "Ekoizpenerako txerria": 10 aste baino gehiagoko txerria, hil edo estali bitartean.

+

348/2000 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa. Dekretu horren bidez ordenamendu juridikora sartzen da 98/58/CE Zuzentaraua, abeltzaintzako ustategietan abereak babesteari buruzkoa.

Ekoizleen bete beharrekoak:

- Txerri kategoria guztientzako baldintza orokorrak:

1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 1. KAPITULUA + 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINA:

1. 1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 6. ptu. Taldean hazi behar baina erasokorrak diren txerriak, beste txerri batzuen erasoan izan dutenak edo gaixorik edo zauriturik

daudenak banakako esparruetan hazi daitezke aldi baterako.

Horietan txerriek arazorik gabe eman ahal izango dute bira, betiere albitariak emandako aholkuen kontrakoa ez bada.

2. 1135/2002 Errege Dekretuaren I. kap. 1. ptu. Zarata: etengabeko zarataren mailak ezingo du 85 dB gainditu. Halaber, saihestu egingo dira zarata iraunkorrak eta bat-batekoak.

3. 1135/2002 Errege Dekretuaren I. kap. 2. ptu. Argia: txerriek 40 lux-eko argi intentsitatea izan beharko dute, egunean gutxienez zortzi ordutan.

4. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 1. kap. 3. ptu. Txerriak ukuiluratzeko lokalen diseinua: abereak atsedean gunea izango dute. Leku hori eroso izango da fisikoki eta termikoki, eta era egokian egongo da drainatua. Halaber, leku garbia izango da. Gune horrek abere guztiak batera etzateko aukera emango du.

Normaltasunez atsedean hartu eta jaiki ahal izango dira. Txerri guztiek

elkar ikusi ahal izango dute. Nolanahi ere, erditu aurreko astean eta erditzean bertan, txerri emeak eta txerri eme gazteak espezie bereko abereen bistatik urrun utz daitezke

5. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN I. kap. 4. art. Txerriek beti izango dute eskura ikerketa- eta manipulazio-jarduera egokiak bideratuko dituzten material kopuru nahikoa: lastoa, belar ondua, egurra, zerrautsa, txanpinoi konposta, zohikatza, edo horien nahasketa. Ezingo dira, ordea, abereen osasunerako kaltegarriak izan.

6. 1135/2002 Errege Dekretuaren I. kap. 5. ptu. Zoruak: zoruak lauak eta ez labaingarriak izango dira. Txerriek oinazetik edo sufrimendurik ez eragiteko moduan diseinatu, eraiki eta zainduko dira. Txerriaren tamainaren eta pisuaren araberakoak izango dira. Lasto-etzalekurik jartzen ez bada, azalera zurrun, lau eta egonkorra osatuko dute.

7. 1135/2002 Errege Dekretuaren I. kap. 6. ptu. Elikadura: txerri guztiek gutxienez egunean behin jan beharko dute. Txerriek taldeka –eta ez bere kasa- edo banaka elikatzeko sistema automatikoaren bidez jaten badute, taldeko gainerakoekin batera jango dute.

348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 8. ptu. Elikadura, ura eta beste substantzia batzuk. elikadura osasuntsua eta nahikoa izango dute, osasun egoera onari eusteko eta dituzten nutrizio beharrianak asetzeko. Ez zaie emango alferrikako kalteak edo sufrimendua eragingo dieten ez elikagairik ez urik, ezta horietan bestelako substantziarik ere. Elikagai eta ura izango dute tarteka, modu egokian. Kalitate oneko ur kopuru nahikoa edo bestelako likidoak izango dituzte euren ur-premia asetzeko. Abereentzako elikagaien eta uraren kutsadura arriskua ahalik eta gehien murrizteko moduan eta abereen arteko lehia ekiditeko moduan eraiki, instalatu eta mantenduko dira ustiatzea urez eta likidoz hornitzeko ekipoa. Substantziak: abereei ez zaie emango bestelako

substantziarik (elikagaiak eta ura salbu), ez badira helburu terapeutikoetarako edo profilaktikoetarako, edo tratamendu zooteknikorako emandakoak. Hori guztia, baldin eta azterketa zientifikoek edo eskarmentuak adierazten ez badute substantzia ez dela kaltegarria abereen osasunerako eta ongizaterako.

8. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN I. kap. 7. ptu. Ura: bi astetik gorako txerri guztiek izango dute beti eskura nahiko ur fresko.

9. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN I. kap. 8. ptu. Mutilazioak: oro har, debekatu egingo dira arrazoi terapeutikoetan edo diagnostikokoetan oinarritzen ez diren prozedurak edo indarrean dauden araudien arabera txerriak identifikatzekoak diren prozedurak, baldin eta lesioak, gorputzaren alde esanguratsu bat galtzea edo hezurdura aldatzea badakarte. Salbuespenak: (1135/2002 Errege Dekretuaren 5. artikulua arabera, albaitariren edo adituren batek zehaztuko ditu (aplikatutako teknikak gauzatzen eskarmentua duen pertsonak alegia) betiere

bitarteko eta higiene baldintza egokiak dituela.

a) Esne-txerrikumeen hortz-ertzak zorroztea edo moztea, eta gune lau bat ukitu gabe uztea, betiere jaio ondoren zazpi egun igaro baino lehen.

b) Aketzen letaginak moztea, beste abereei zauririk ez eragiteko helburuarekin edo segurtasun arrazoiengatik.

c) Buztan zati bat moztea. Txerrikumea jaio eta zazpigarren egunetik aurrera egingo da. Anestesia bidez eta analgesia luze baten bidez egingo du albaitariak. Buztan zati bat moztea zein hortz-ertzak moztea ez dira ohituraz egingo; aitzitik, txerri emeen titietan edota beste txerri batzuen belarri edo buztanetan zauriak eragin direnean baino ez. Kaudofagia edo beste bizio batzuk ekiditeko neurriak hartuko dira buztana mozten hasi aurretik, betiere kontuan hartuta ingurumen baldintzak eta abere-zama.

d) Txerri arrak zikiratzea, baina ehunak urratu gabe. Txerrikumea jaio eta zazpigarren egunetik

aurrera egingo da. Anestesia bidez eta analgesia luze baten bidez egingo du albaitariak.

e) Muturra eraztunez jostea, bakarrik abereak aire libreko hazte sistemen barruan badaude, eta arau nazionaleri jarraiki.

10. 348/ 2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 1. ptu. Langileak: nahikoak izango dira, eta beharrezko gaitasun eta ezagutza profesional maila izango dute.

1135/2002 Errege Dekretuaren 5. art. Langileen prestakuntza: txerriak zaintzeko langileak kontratatzen dituen edonork ziurtatu egin beharko du langile horiek instrukzio eta aholkularitza egokia jaso dutela ustiategietan txerriak zaintzeko baldintzei buruz. Horretarako, Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunek ziurtatu egingo dute prestakuntza eskainiko dela ikastaroen bidez. Ikastaro horiek, gutxienez 20 ordukoak izango dira, eta eduki teorikoak eta praktikoak izango dituzte honako gai hauei buruz: abereen fisiologia, jarrera, abere-osasun arloko kontzeptu orokorrak eta abereen ongizateari buruz indarrean dagoen araudia.

11. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 2. ptu. Hazleek egin beharreko ikuskaritzak eta kontrolak: a) abereen ongizatea gizakiaren arretaren arabera bada, gutxienez egunean behin egingo dira, eta beste hazkuntza sistema batzuetan batetik bestera nahiko tarteak utzita (ukuiluan sartutako txahalei egunean birritan), b) abereak aztertzeko argiztatzeko finko edo mugikor egokia, c) gaixorik edo zauriturik dagoen abereari berehalako tratamendu egokia emango zaio, eta tratamenduari erantzuten ez badiu, albaitariarekin kontsultatuko da albaitariarekin. Beharrezkoa bada, leku egokian isolatuko dira abereak.

12. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 3. ptu. Erregistroak: emandako tratamendu mediku guztiena eta hildako abere guztiena. Ondorio horietarako, baliagarria da erregistro horiek beste helburu batzuetarako erabiltzea. Gutxienez hiru urtez jasoko dira, eta Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunaren esku jarriko dira, hala eskatuz gero.

13. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 5. ptu. Eraikin, ukuilu, esparru eta ekipamenduen materialak: eraikuntza materialak ez dira kaltegarriak izango abereentzat, eta sakonki garbitu eta desinfektatu ahal izango dira. Ukuiluek eta elementu osagarriak ez dute izkina zorrotzik izango abereak ez zauritu ez daitezen. Airearen zirkulazioa, hauts maila, tenperatura, airearen hezetasun erlatiboa eta gas kontzentrazioa maila egokian mantendu beharko dira, abereentzat kaltegarriak izan ez daitezen.

14. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 6. ptu. Aire zabalean dauden abereak: eguraldi txarretik, harraparietatik eta gaixotasunetatik babestu egingo dira, beharrezkoa izanez gero eta ahal izanez gero.

15. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 7. ptu. Ekipamendu automatikoak eta mekanikoak: gutxienez egunean behin aztertuko dira abereen ongizaterako eta osasunerako ezinbestekoak diren ekipamenduak. Akatsak aurkituz gero, berehala konponduko dira; baina ezinezkoa bada, neurri egokiak hartuko dira. Abereen

ongizatea eta osasuna aireztapen artifizialerako sistemaren menpe badaude, larrialdietarako sistema egokia izan beharko da nahiko aire berritzen dela bermatzeko (adibidez: leihoak irekitzea). Alarma sistema ere izan beharko da matxuraren berri izateko. Sistema hori maiz egiaztatu beharko da.

16. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 10. ptu. Ez da abererik mantenduko ustiatzean oinarrikerik gabeko abeltzaintza helburuekin (bere genotipoan eta fenotipoan oinarrituta), osasunean eta ongizatean eraginik izango ez duelakoan.

- Txerri kategoria bakoitzeko berariazko xedapenak:

1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II KAPITULUA + 1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art.: Txerri kategoria bakoitzeko hazkuntza baldintzak.

➤ **AKETZAK:**

1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. kap. A) idatz-zatia: aketzak jiratzeko eta gainerako txerriak entzun, usaindu eta ikusteko moduan kokatu eta eraikiko dira gelak. Eragozpenik

gabeko, gutxienez, 6 metro koadroko zorua izan beharko du aketz heldu bakoitzak. Esparruok estaltzeko ere erabiltzen direnean, aketz heldu bakoitzaren zoru azalera 10 metro koadrokoa izango da, gutxienez. Eta eragozpenik gabea izan beharko du.

➤ **TXERRI EMEAK ETA TXERRI EME GAZTEAK:**

a.1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 4. ptu.

2003ko urtarrilaren 1etik aurrera eraiki, berreraiki edo lehenengo aldiz erabiltzen diren ustiategi guztietan aplikatuko da, eta 2013tik aurrera ustiategi guztietan:

Txerri emeak eta txerri eme gazteak taldeka haziko dira, estali ondorengo laugarren astetik hasi eta erditzerako aurreikusitako data baino zazpi egun lehenago bitartean, 10 txerri baino gutxiagoko ustiategietan izan ezik. Horietan, txerri emeak isolatuak egon daitezke epe horretan, betiere esparruan jiratzeko aukera badute. Taldea egongo den esparruaren alboak 2,8 metro baino luzeagoak izango dira.

Taldean sei txerri baino gutxiago badaude, esparruaren alboak 2,4 metro baino luzeagoak izango dira.

b.1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 2. ptu. eta 3. ptu.

2003ko urtarrilaren 1etik aurrera eraiki, berreraiki edo lehenengo aldiz erabiltzen diren ustiategi guztietan aplikatuko da, eta 2013tik aurrera ustiategi guztietan:

Taldean badaude, TXERRI EME bakoitzak 2,25 metro koadroko oztoporik gabeko lurzorua izango du. Horietatik 1,3 metro koadro txerri eme umedunentzat izango da, lurzoru trinkoa eta iraunkorra. Azalera horren %15, gutxienez, drainatzeak irekitzeko erabiliko da. ESTALI ONDOREN, TXERRI EME GAZTE BAKOITZAK 1,64 metro koadroko oztoporik gabeko lurzorua izango du. Horietatik 0.95 metro koadro txerri eme umedunentzat izango da, lurzoru trinkoa eta iraunkorra. Azalera horren %15, gutxienez, drainatzeak irekitzeko erabiliko da. Bi kasuetan, taldean 6 abere baino gutxiago badaude, abere

bakoitzeko zoru librearen azalera %10 handiagoa izango da. Taldean 40 txerri edo gehiago badaude, abere bakoitzeko zoru librearen azalera %10 txikiagoa izan liteke. Taldean hazitako txerrientzat hormigoizko zoru parrilatuak erabiltzen badira, irekiduren zabalera, gehienez ere, 20 mm-koa izango da txerri emeentzat eta estali ondorengo txerri eme gazteentzat. Soliben zabalera, gutxienez, 80 mm-koa izango da txerri emeentzat eta estali ondorengo txerri eme gazteentzat.

c.1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 7. ptu. Taldean bizi diren txerri emeak eta txerri eme gazteak elikatzeko sistemak bermatu egin beharko du abere bakoitzak jateko nahikoa izango duela, nahiz eta beste abere batzuk izan ondoan bazkarekin lehian.

d.1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 8. ptu. Txerri eme gazteek, titia kendu ondorengo txerri emeek eta txerri umedunek bolumeneko edo zuntz ugariko elikagaiak hartu beharko dituzte,

bai eta eduki energetiko handiko elikagaiak ere.

e.1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 10 ptu. Ezin izango da instalaziorik eraiki edo egokitu txerri emeak edo txerri eme gazteak lotzeko. Halaber, debekatuta dago txerri emeekin edo txerri eme gazteekin lokarriak erabiltzea (2006ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikagarria).

f. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. Kap. B) idatz-zatia: taldeko erasoak ekiditeko neurriak hartuko dira.

g.1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. kap. B) idatz-zatia: behar izanez gero, txerri eme umedunek eta txerri eme gazteek barruko zein kanpoko parasitoen aurkako tratamendua hartu beharko dute. Erditze-guneetan jarriz gero, txerri eme umedunek eta txerri eme gazteek garbi egon beharko dute.

h.1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. Kap. B) idatz-zatia: erditzeko egunaren aurreko astean, txerri emeek zein txerri eme gazteek material egokia eta nahikoa izan beharko dute habia egiteko, ez bada teknikoki ez dela bideragarria establezimenduan erabilitako gorotz likidoko sistemarekiko.

i. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. Kap. B) idatz-zatia: txerri emeen edo txerri eme gazteen atzealdean gune librean egokitu beharko da, modu naturalean edo lagunduan erditzeko.

j. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. Kap. B) idatz-zatia: txerri emeek modu librean ibiliko dira erditzeko geletan. Gela horiek esne-txerrikumeak babesteko dispositiboak izango dituzte, barroteak adibidez.

➤ **ESNE-TXERRIKUMEAK:**

a.1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. Kap. C) idatz-zatia: zoru-azaleraren zati bat nahikoa izango da esne-txerrikume guztiak batera

etzanda egoteko. Zorua tinkoa izango da, eta lastoa edo beste material egokiren bat izan beharko du zoru gainean.

b.1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. Kap. C) idatz-zatia: erditze-guneak erabiliz gero, nahiko leku izan beharko dute esne-txerrikumeek eragozpenik gabe titia hartu ahal izateko.

c.1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 3. ptu. B) idatz-zatia: hormigoizko zoru parrilatuak erabiltzen badira, irekiduren zabalera, gehienez ere, 11 mm-koa izango da; eta soliben zabalera, gutxienez, 50 mm-koa izango da (2003ko urtarrilaren 1etik aurrera eraiki, berreraiki edo lehenengo aldiz erabiltzen diren ustiategi guztietan aplikatuko da, eta 2013tik aurrera ustiategi guztietan).

d.1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. kap. C) idatz-zatia: esne-txerrikumeei ez zaie titia kenduko hogeita zortzi egun baino lehen, ez bada titia emateak kaltea eragin diezaiekeela edo txerri emearen

osasanari zein ongizateari edo esne-txerrikumeei euri. Hala ere, esne-txerrikumeak instalazio berezietara eramanez gero, zazpi egun lehenago ken dakieke titia. Instalaziook hustu eta sakonki garbitu eta desinfektatuko dira beste talde bat sartu aurretik, eta txerri emeen instalazioetatik bereizturik egongo dira, esne-txerrikumeei gaixotasunak kutsatzea murrizteko.

Bizi-pisua (kilotan)	Metro koadroak
1 kilo arte	0,15
10 eta 20 kilo artean	0,20
20 eta 30 kilo artean	0,30
30 eta 50 kilo artean	0,40
50 eta 85 kilo artean	0,55
85 eta 110 kilo artean	0,65
110 kilotik gora	1,00

➤ **TITIA KENDUTAKO TXERRIKUMEAK ETA EKOIZPENERAKO TXERRIAK:**

a.1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 1. ptu. Taldean hazi eta titia kendutako txerrikume bakoitzak edo ekoizpenerako txerri bakoitzak honako zoru libre hau izan beharko du gutxienez:

b. 1135/2002 Errege Dekretuaren 3. art. 3. ptu. B) idatz-zatia: hormigoizko zoru parrilatuak erabiltzen badira, irekiduren zabalera, gehienez ere, 14 mm-koa izango da titia kendutako txerrikumeentzat; eta soliben zabalera, gutxienez, 50 mm-koa izango da titia kendutako txerrikumeentzat eta 80 mm-koa ekoizpenerako txerrientzat (2003ko urtarrilaren 1etik aurrera eraiki, berreraiki edo lehenengo aldiz erabiltzen diren ustiategi guztietan aplikatuko da, eta 2013tik aurrera ustiategi guztietan).

c. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. Kap. D) idatz-zatia: txerriak taldean hazten badira, neurriak hartu beharko dira borroka saihesteko.

d. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. Kap. D) idatz-zatia: txerriak ahalik eta gutxien nahastuta egongo dira taldean. Elkarrekin bizitzen ohituta ez dauden txerriak nahastu behar badira, ahalik eta gazteenak izan beharko dute, ahal bada titia kendu aurretik edo, goitik jota, astebete geroago. Txerriak nahasten badira, aukera emango zaie beste txerriengandik alde egiteko edo ezkutatzeko.

e. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II. kap. D) idatz-zatia: borroka bortitzaren zantzurik antzemanaz gero, neurri egokiak hartuko dira, adibidez lasto ugari emango zaie abereei. Arriskuan dauden abereak edo erasotzaile jakinak taldetik bereizi egingo dira.

f. 1135/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN II, kap. D) idatz-zatia. Lasaigarriak: Abereen arteko nahasketa errazteko, lasaigarriak oso egoera berezietan baino ez dira

erabiliko, eta betiere albaiariari kontsulta egin ondoren.

Beste herrialde batzuetatik inportatzea:

1135/2002 Errege Dekretuaren 6. art. Espainiara inportatzeko, beste herrialde batzuetako abereek herrialde horretako erakunde eskudunaren agiria izan beharko dute. Agiriak ziurtatuko du abere horiek komunitateko abereek izan duten tratamenduaren antzekoa jaso dutela, gutxienez.

OILO ERRULEAK

3/2002 Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, oilo erruleak babesteko gutxienerako arauari buruzkoa.

Dekretu horrek 1999/74/CE Zuzentaraua sartzen du Estatuko barne zuzenbidera.

2002ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean, zenbait baldintza izan ezik (baldintza horiek zein egunetan jarri ziren indarrean zehazten da).

MARMaren 1987ko urriaren 21eko Agindua indargabetzen du. Agindu horretan taldekako oilo erruleak babesteko gutxienerako neurriak zehazten ziren.

Ez da aplikatuko: 350 oilo errule bakoitzeko ustiatzean, oilo erruleen hazkuntzarako ustiatzean.

- 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera egokitutako kaiolak baino ezin dira jarri.
- Egokitu gabeko kaiolak dituzten ustiatzeak xedapen jakin batzuk bete beharko dituzte
- 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera kaiola guztiak egon beharko dira egokituta.
- Sistema alternatiboen bidezko hazkuntzak (kaiolarik gabea) Errege Dekretu horretan zehaztutako baldintzak bete behar ditu 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Ekoizleek bete beharreko betekizunak:

- 3/2000 Errege Dekretuaren I. ERANSKINA + 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINA

Hegazi ustiatzei guztietarako xedapenak, hazkuntza sistema gorabehera:

1. 348/ 2000 Errege Dekretuaren I. ERANSKINAREN 1. ptu. Langileak: beharrezko gaitasun eta ezagutza profesional maila izango dute
2. 3/2002 Errege Dekretuaren I. ERANSKINAREN 1. ptu. eta 6. ptu. Jabeak edo oiloen arduradunak egin beharreko ikuskatzeak: gutxienez

egunean behin. Hainbat maila dituzten instalazioek aukera emango dute maila guztiak zuzenean eta eragozpenik gabe ikuskatzeko.

348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 2. ptu. b) idatz-zatia: argizatzea (finkoa ala mugikorra) oiloak aztertzeko hainbatekoa izango da.

348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 2. ptu. c) idatz-zatia: gaixotasun edo zauriren bat izan dezakeen abereak tratamendua jasoko du berehala. Abereak zaintza horiei erantzuten ez badie, albaitariarengana joko da ahalik eta lasterren.

3. 3/2002 Errege Dekretuaren I. ERANSKINAREN 2. ptu. Zarata: ahalik eta zarata gutxien egingo da. Saihestu egingo dira zarata iraunkorrak edo bat-batekoak.

4. 3/2002 Errege Dekretuaren I. ERANSKINAREN 3. ptu. Argizatzea: oiloek elkar ikusteko, eurak ikusiak izateko eta euren jarduerak era normalean gauzatzeko moduan argizatutako dira eraikinak. Argia naturala bada, argiari sartzen uzten dioten irekidurak instalazio guztia

aldi berean argizatzeke moduan jarriko dira.

Egokitzapen aldiko lehenengo egunak igaro ondoren, argizatzeak 24 orduko erritmoa izango du eta etengabeko iluntze-aldi nahikoa eskainiko du (adibidez egunaren herena).

5. 3/2002 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 4. ptu. Instalazioen eta ekipoen garbiketa: oiloek uki ditzaketen lokalak, ekipoen eta tresnak maiz garbitu eta desinfektatu beharko dira sakonki, eta beti hustuketa sanitarioa egiten denean. Behar den gutxietan kenduko dira gorotzak, eta egunero hildako oiloak.

6. 3/2002 Errege Dekretuaren I. ERANSKINAREN 5. ptu. eta 7. ptu. Hazkuntza-sistemak oro har: hazkuntza-sistemak behar bezala egokitu behar dira, oiloek alde egin ez dezaten. Kaiolen irekidura bertatik oilo bat oinazetik eta zauririk gabe ateratzeko adinakoa izango da.

7. 3/2002 Errege Dekretuaren I. ERANSKINAREN 8. ptu. Mutilazioak: mutilazioak galarazita daude. Hala

ere, 10 egun baino gutxiagoko txitei mokoia moztu ahal izango diete langile adituek.

8. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 3. ptu. Erregistroak: emandako tratamendu mediku guztiena eta hildako oilo guztiena. Ondorio horietarako, baliagarria da erregistro horiek beste helburu batzuetarako erabiltzea. Gutxienez hiru urtez jasoko dira, eta Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunaren esku jarriko dira

9. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 5. ptu. Eraikin, ukuilu, esparru eta ekipamenduen materialak: eraikuntza materialak ez dira kaltegarriak izango abereentzat, eta sakonki garbitu eta desinfektatu ahal izango dira. Ukuiluek eta osagarriek ez dute izkina zorrotzik izango abereak ez zauritzeko. Airearen zirkulazioa, hauts maila, temperatura, airearen hezetasun erlatiboa eta gas kontzentrazioa maila egokian mantendu beharko dira, abereentzat kaltegarria ez izateko.

10. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 7. ptu. Ekipamendu automatikoak eta mekanikoak:

gutxienez egunean behin aztertuko dira abereen ongizaterako eta osasunerako ezinbestekoak diren ekipamenduak. Akatsak aurkituz gero, berehala konponduko dira; baina ezinezkoa bada, neurri egokiak hartuko dira. Abereen ongizatea eta osasuna aireztapen artifizialerako sistemaren menpe badaude, larrialdietarako sistema egokia izan beharko da nahiko aire berritzen dela bermatzeko (adibidez: leihoak irekitzea). Alarma sistema ere izan beharko da matxuraren berri emateko. Sistema hori maiz egiaztatu beharko da.

11. 348/2000 Errege Dekretuaren ERANSKINAREN 10. ptu. Ez da abererik mantenduko ustiategian oinarririk gabeko abeltzaintza helburuekin (bere genotipoan eta fenotipoan oinarrituta), osasunean eta ongizatean eraginik izango ez duelakoan.

- 3/2000 Errege Dekretuaren II. ERANSKINA.

Egokitu gabeko kaiolak dituzten ustategietarako xedapenak (2003ko urtarrilaren 1a baino lehen eta 2012ko urtarrilaren 1era bitartean jartzen diren kaiolentzat derrigorrezkoa; izan ere, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera debekatu egin zen egokitu gabeko kaiolak jartzea eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera kaiola guztiek egon beharko dute egokituta):

1. 3/2002 Errege Dekretuaren II. ERANSKINA. Oiloek 550 cm²-ko azalera izan beharko dute kaiola barruan oiloko, eta murriztapenik gabe erabili ahal izango dute. Azalera plano horizontalean neurtuko da.
2. 3/2002 Errege Dekretuaren II. ERANSKINA. Bazkalekua 10 cm luze izango da oiloko
3. 3/2002 Errege Dekretuaren II. ERANSKINA. Uraskak, kikararik edo pitarik ez badute, jarraituak izango dira eta oiloko 10 cm luze. Lotura duten uraskak izanez gero, bi pita edo kikara kaiolatik hurbil egongo dira.

4. 3/2002 Errege Dekretuaren II. ERANSKINA. Kaiolaren altuera 35 cm-koa izango da kaiolako gune guztietan, eta gutxienez 40 cm-koa kaiolaren azaleraren %65ean.

5. 3/2002 Errege Dekretuaren II. ERANSKINA. Kaiolaren zoruak hanka bakoitzeko aurrealdeko behatzei egokiro eutsi beharko die, eta zoruaren malda ez da izango %14tik edo 8 gradutik gorakoa. Alanbre sare angeluzuzenez bestelako materiala erabiltzen bada zoruan, erakunde eskudunak aldapa handiagoak onar ditzake.

6. 3/2002 Errege Dekretuaren II. ERANSKINA. Atzazalak mozteko dispositibo egokiak egongo dira kaiolatan.

- 3/2002 Errege Dekretuaren III. ERANSKINA.

Egokitutako kaiolak dituzten ustategietarako xedapenak, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrezkoak:

1. 3/2002 Errege Dekretuaren III. ERANSKINAREN 1. ptu. Kaiolaren azalera guztia 2.000 cm²-tik gorakoa izango da.

Kaiolaren azalera 750 cm²-koa izango da oilo bakoitzeko, eta horietatik 600 cm² erabilgarriak izango dira (azalera erabilgarria: gutxienez 30 cm-ko altuera, %14ko aldapa gehienez eta espazio librean 45 cm-ko altuera; azalera erabilgarriaren gainetik dagoenaz gain, gutxienez 20 cm-ko altuera izango da kaiola osoan).

2. 3/2002 Errege Dekretuaren III. ERANSKINAREN 2., 3. eta 5. ptu. Gainera, kaiolak honako hauek ere izan beharko ditu: habia, atzazalak mozteko dispositibo egokia, mokoka eta aztarrika egiteko ohantzea, eta oiloko 15 cm-ko azalera duten kotak. Oiloko 12 cm-ko bazkalekua eta uraska egokia. Lotura duten uraskak izanez gero, bi pita edo kikara kaiolatik hurbil egongo dira.

3. 3/2002 Errege Dekretuaren III. ERANSKINAREN 4. ptu. Kaiola errenkadak gutxienez 90 cm-ko korridoreez bereiztuko dira, eta gutxienez 35 cm-ko tartea egongo da zoruaren eta kaiolen lehenengo errenkadaren artean.

- 3/2002 Errege Dekretuaren IV. ERANSKINA.

Sistema alternatiboetarako xedapenak, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrezkoak hazkuntza alternatiboko ustiategi guztietarako:

1. 3/2002 Errege Dekretuaren IV. ERANSKINA. Azalera erabilgarriaren metro koadroko ezingo da 9 oilo baino gehiago egon. Nolanahi ere, azalera erabilgarria eta baliagarria bat datozenean, metro koadro baliagarriko 12 oilo egon daitezke 2011ko abenduaren 31ra bitartean, sistema hau 1999ko abuztuaren 3an aplikatu zuten establezimenduetan.
2. Luzetarako bazkalekuak hegaztiko 10 cm-ko luzera izango dute eta bazkaleku zirkularrek hegaztiko 4 cm-ko luzera.
3. Uraska jarraituek 2,5 cm-ko luzera izango dute oiloko eta zirkularrek oiloko zentimetro bat. Uraskek pita edo kikara izanez gero, oiloko gutxienez bat egongo da. Lotura duten urasketan oilo bakoitzak bi pita edo kikara izango ditu gutxienez.

4. 3/2002 Errege Dekretuaren IV. ERANSKINA. Zazpi oiloko habia bat egongo da. Talde-habiak izanez gero, habiaren azalera metro koadro batekoa izango da, gehienez ere 120 oiloko.

5. 3/2002 Errege Dekretuaren IV. ERANSKINA. Kotak egonez gero, ez dute altzairuzko kantoirik izango eta gutxienez 15 cm-ko azalera izango dute oilo bakoitzeko. Kotak ezingo dira jarri ohantzearen gainean, eta koten arteko distantzia horizontala 30 cm-koa izango da eta 20 cm-koa hormaren eta kotaren artekoa.

6. 3/2002 Errege Dekretuaren IV. ERANSKINA. Ohantzeak zoruaren herena hartuko du gutxienez, eta ohantzea 250 cm-koa izango da oiloko.

7. 3/2002 Errege Dekretuaren IV. ERANSKINA. Instalazioaren zoruak modu egokian eutsi beharko die hanka bakoitzeko aurrealdeko behatzei.

8. 3/2002 Errege Dekretuaren IV. ERANSKINA. Oiloek kanpoaldera ateratzeko aukera duten hazkuntza-sistematarako: irteteko tranpak

zuzenean kanpoaldera zuzenduta egongo dira. Gutxienez 35 cm-ko altuera izango dute eta 40 cm-ko zabalera. Eraikinaren azalera guztian jarriko dira. Hala ere, 1.000 oiloko 2 metroko zabalera duen irekigune bat ere egongo da. Kanpoaldeko guneek oiloen dentsitatearen eta zoruaren izaeraren arabera azalera egokia izango dute. Gainera, eguraldi txarrari eta harrapariei aurre egiteko aterpeak eta uraskak izan beharko dituzte.

9. 3/2002 Errege Dekretuaren IV. ERANSKINA. Maila ezberdinetako hazkuntza-sistematarako: gehienez ere 4 maila gainjarri ahalko dira. Mailen arteko altuera gutxienez 45 cm-koa izango da. Bazkalekuak eta uraskak oiloek aukera berberak izateko moduan jarriko dira. Mailak kokatzerakoan, ekidin egin beharko da gorotzak behealdeko mailalara erortzea.

Laburpen honetan haragitarako oiloentzako baldintzak baino ez dira aipatzen.

HARAGITARAKO OILOAK

Kontseiluaren 2007/43/CE Zuzentaraua, 2007ko ekainaren 28koa, haragitarako oiloen babeserako oinarritzko neurriak ezartzeari buruzkoa. Zuzentarau hori Estatuko barne zuzenbidera sartzeko dago. Estatuko barne zuzenbidera sartzeko azken eguna: 2010eko ekainaren 30a.

Bitartean, *irailaren 16ko 1084/2005 Errege Dekretua* dago indarrean, haragitarako *hegatzaintzaren antolamenduari buruzkoa*. Dekretuaren I. ERANSKINean egiten zaio erreferentzia Abereen Ongizateari.

Ez da aplikatuko: Autokontsumorako ustiategietan: gehienez ere bizi-pisuaren eta urteko 210 kilo ekoizten dutenetan eta ekoizpena merkaturatzen ez dutenetan.

1. I. ERANSKINA B b) idatz-zatia: ustiapeneko nabe bakoitzean azalera erabilgarriaren metro koadroko ezin izango da egon abereen bizi-pisuaren 30 kilo baino gehiago. Nolanahi ere, sistema mekaniko osagarrien bidez, tenperaturaren, hezetasun erlatiboaren eta aire berriztapenaren parametroak kontrolatu eta aldatu badaitezke, abereen bizi-pisuaren 38 kilo baimenduko dira metro koadroko. Halakoetan, aireko amoniakoaren (NH₃) kontzentrazio-maila ez da 20 ppm baino handiagoa izango, eta karbono dioxidoaren kontzentrazio maila 3.000 ppm baino baxuagoa izango da. Kontzentrazio-mailak oiloen buruaren mailan neurtuko dira. 2. Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutako kontzentrazio-mailak murriztu ahal izango ditu erakunde eskudunak, abereen ongizatea arriskuan baldin badago.

2. I. ERANSKINA: Kapoiak eta pulardak ekoizteko Gallus gallus espezieko hegaztiak zikiratzea baimenduko dute erakunde eskudunek, betiere ustiategiaren titularrak eskatzen badu, ohiko ekoizpenak badira eta analgesia eta anestesia bidez egiten bada. Hegaztiak albaitari batek zikiratuko ditu, edo erakunde eskudunak aitortu eta berariazko prestakuntza duten langileek gainbegiratuko dute. Debekatuta dago abere biziei lumak edo lumatxa kentzea.

3. Langileen prestakuntza: 1084/2005 Errege Dekretuaren I. ERANSKINAREN A) ptu. Ustiategiaren titularrak bermatu egin beharko du abereak zaintzeaz eta manipulatzearaz arduratzen diren langile guztiek prestakuntza nahikoa dutela abereen ongizatea ziurtatzeko. Hegaztiak zaintzeaz eta manipulatzearaz arduratzen diren langileek gutxienez 20 orduko ikastaroak egin beharko dituzte. Ikastaro horretan gai hauek landuko dituzte: abereen fisiologia, jarrera, abere-osasuna, ekipoen eta instalazioen funtzionamendua eta abereen ongizateari buruz indarrean dagoen araudia

4. I. ERANSKINA c) eta d) idatz-zatiak: nabeetako giroari dagokionez, eguneko gehienezko eta gutxienezko tenperatura kontrolatuko da, txitak nabe itxietan hazten badira. Lurrean hazitako txitei dagokienez, azaleran trinkotu gabeko ohantzeetan jarri ahal izango dira.